BOTTLEBOL ZER DA?

WEB ORRIALDEA

Gorputz Hezkuntza

BOTTLEBOL-a **EZ-OHIKO KIROL** modalitate bat da, KIROL **KO-HEZITZAILEA**, **KOLABORAZIO-OPOSIZIOA** ematen da, **INTERDIZIPLINARRA** eta **INKLUSIBOA**, ikasleen **PARTE-HARTZE MAXIMOA** bilatzen du, **BIRZIKLATUTAKO MATERIALA**rekin praktikatzen da **BANATUTAKO** zelai batean eta kirola praktikatzeko **KOLPE ETA REZEPZIOAK** materialarekin, **BIRAK** eta mota guztietako **DESPLAZAMENDUAK** egiten dira.

ZER DA?

NON SORTU ZEN?
-Alicanten, Albaterako “Virgen del Rosario” Ikastetxe publikoan

-Sortzailea: **Jose Antonio Amador Carretero**

ZERGATIK BOTTLEBOL-A?

- Kirol tresnak ez diren materialei bigarren erabilera bat emateko
- Gure ikasleengan natura zaintzeko baloreak eta birziklatzearen garrantzia bultatzea, helburu bikoitza:
    - Planeta gehiago errespetatu eta zaintzen duten pertsonak heztea, eta sormena indartzea.
    - Aisialdiko jarduera berritzaile eta motibatzaileak eskaintzea, eta inguruan dituzten materialen potentziala erakutsiz haien interesei erantzuna ematea.
- Horrelako jardueren bitartez (arautegi malgua, gure taldearen behar eta interesetara moldatu daitekeena)ikasle guztien hasiera puntua **homogeneoa** izatea lortzen delako (denentzako da ezezaguna kirol hau).
    - Ezagunak diren kirolekin maila desberdintasun handia ikusten da eta hainbat ikasle baztertuak sentitzen dira.

BOTTLEBOL-AREN ALDERDI POSITIBOAK

- Erabiltzen den **MATERIALA BIRZKIKLATUA** da, eta **NORBERAK BEREA SORTZEN** du
- Jokoan zerhar **KOLPEAK** eta **JASOTZEAK** materialarekin, eta **DESPLAZAMENDU DESBERDINAK** lantzen dira
- Lehiaketak ematen duen **MOTIBAZIOA** izan arren, kirol **KOOPERATIBOA** da.

BOTTLEBOL-AREN ALDERDI POSITIBOAK

- **INKLUSIBOA** eta **KO-HEZITZAILEA** da. Estereotipatua ez dagoenez denek ezagutza maila berdina dute, eta EZ da ematen sexu edo abileziarengatik bereizketarik
- Jokalarien artean **EZ DAGO KONTAKTURIK**, horrek bake hezkuntza eta biolentziari uko egitea bultzatzen ditu
- **INTERDIZIPLINARRA** da

BOTTLEBOL-AREN ALDERDI POSITIBOAK

- Arautegia **DENEN PARTEHARTZEA** bultzatzeko sortua da (errotazio asko, denek ukitu behar izatea...)
- **ARAU** guztiak **ALDATU DAITEZKE** eta ikasleen beharretara **EGOKITU**
- Kirol tradizionalekiko **TRANSFERENTZIA** ahalbidetu eta errazten du
- **SORMENA** landu eta indartzen du (bakoitzak bere materiala sortu eta moldatzeko aukera du)

BOTTLEBOL ETA KONPETENTZIAK

01. **KONPETENTZIA LINGUISTIKOA:** birziklapena, ingurugiroa eta ez-ohiko jolas eta kirolen inguruko hiztegia handitzen da

02. KONPETENTZIA MATEMATIKOA ETA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAN KONPETENTZIA: material propioa sortzearen garrantzia eta birziklatzearen garrantzia.

03. KONPETENTZIA DIGITALA: ez-ohiko kirolen, ingurugiroa zaintzearen garrantziaz eta birziklapenaren inguruko informazioa bilatzea, analisia egitea eta hautatzea.

04. IKASTEN IKASTEA KONPETENTZIA: ezagutza berrien aurrean norbere buruarekiko konfidantza eta autoestimua.

05. GIZARTEARATZE KONPETENTZIA: lan interdiziplinarra, talde-lana, arautegiarekiko etb. errespetua eta arazoen ebazpena.

06. EKINTZAILETZA KONPETENTZIA: berrikuntzetara moldatzeko eta arazoak ebazteko erronka kooperatibo zein lehiaketalko egoeran

07. KONPETENTZIA KULTURALA: sormena, iniziatiba, originaltasuna, gustua… haien bottle + bol-a sortzean

BEHARREZKO MATERIALA

1. **BOTTLE-a:** “bol”-a jo zein jasotzeko erabiliko dugu. Hau sortzeko beharko dugu:
   - 5-8 litroko garrafa
   - Garrafa honen oinarria moztuko dugu
   - Garrafa apainduko dugu (goma-eva, tenperak, zintak, errotulagailuak etb.)

Hemen dituzue “BOTTLE”aren ZATIAK

ELCHE C.F.

BEHARREZKO MATERIALA

2. BOL-a: “bottle”arekin kolpatu eta jasoko dugun PILOTA da. Hau sortzeko:

- 2 aldizkari orri
- 2 puxika

Aldizkariko paperarekin bola bat egin eta puxiketako batekin inguratu, ondoren bestearekin.(malabareak egiten ditugunean bezala)

BOTTLEBOL ETA COVID19-A



- “Bottle-bol”-a egoera berezi honetan burutu daitekeen kirol modalitatea dela esan dezakegu arrazoi hauengatik:
  - Espazio irekietan, hau da, kanpoan egin daiteke
  - Zelaia banatua dago eta ez da kontakturik ematen parte-hartzaileen artean
  - “Talde finkoak” sortzeko aukera ematen du
  - Intentsitate maila ertaina da, beraz maskarilarekin egin daiteke
  - Jokalari bakoitzak berak sortutako material propioa erabiltzen du
  - Aldaketak egitean eskuen desinfekzioa egiten da

JOKO-EREMUA: BOTTLEBODROMOA



- Boleibol-eko joko-eremua erabiliko da
  - 2m-ko altueran sarea
  - Kantxa bi zatitan banatua *(=kontakturik ez)*
- 7 jokalari talde bakoitzean:
  - 6 kantxan
  - Aldaketa eremuan

*Jokalari kopurua, zelai eremua… dena aldatu daiteke ditugun espazio, ikasle, mailaren… arabera!

ARAUTEGIA

- Arauak jokoan sartzen joanen diren ordena berdinean azaltzen joango zaizkie ikasleei, horregatik faseka bilduko dira arauak.
  1. **SAKEA**
  2. **REZEPZIO AURREKO KOLPEAK**
  3. **REZEPZIOA**
  4. **KOLPEA AURKARIEN ZELAIRA ETA ALDAKETA**

ARAUTEGIA: SAKEA

- Atzeko eskuin-aldean dagoen jokalariak jarriko du “bol”-a jokoan
- Pilota “bottle”aren alboko alderekin joko da (ahal bada tapoia goian)
- Zozketa: zelaia edo sakea aukeratu
- Partiduan zehar: sakea aurreko tantua galdu duen taldeak
- “Bol”a sarearen gainetik pasa behar da (sarea ukitu gabe) eta beste zelaiaren barnean erori
- Sake falta: “bol”a sarearen azpirik, sarea ukitu edo kanpora joaten bada.
- Bi sake egiteko aukera. Falta bikoitza: puntua aurkarientzat, errotazioa eta hurrengo jokalariak sakea

ARAUTEGIA: REZEPZIOA

REZEPZIO ZUZENEKO MODALITATEA:

- “Bol”a zuzenean hartu daiteke
- “Bottle”an sartu eta errebotea egiten badu, jokalari berdinak edo taldekide batek berriz har dezake *(beti ere bote egin aurretik)*

BOL MODALITATEA:

- “Bol”a “bottle”aren alde zabalarekin goraka kolpatu + “bol” oihukatu behar da
- Taldekide batek jaso behar du

ARAUTEGIA: REZEPZIOA

BOTTLE MODALITATEA:

- “Bol”a jaso aurretik 2 kolpe:
  - “Bo” ohikatuz lehenengoan
  - “ttle” ohiukatuz bigarrenean
- “Bol”a ezin du 2.kolpea egin duen jokalariak jaso

BOTTLEBOL MODALITATEA:

- “Bol”a jaso aurretik 3 kolpe:
  - “Bo” ohikatuz lehenengoan
  - “ttle” bigarrenean
  - “bol” hirugarrenean
- Jokalari batek ezin du “bol”a 2 aldiz jarraian parte-hartu, bai modu alternoan

ARAUTEGIA: KOLPEA

- “Bol”a beste zelaira bidaltzeko kolpea “bottle”aren alboko aldearekin egin behar da.
- Sarearen gainetik bidali behar da eta zelai eremuen barnean erori behar da

ARAUTEGIA: ALDAKETAK ETA ERRORTAZIOA

- “Bol”a beste zelaira pasa ondoren kolpea egin duen jokalaria jolas eremutik atera beharko da.
- Aldaketa eremuan beste jokalaria egonen da, eta bertane gingo da aldaketa: bat ateratzean bestea sartu, eta libre geratu den postua hartu.
- Errotazioa puntua egiten den aldiro eginen dute bi taldeetan



PUNTUAZIO SISTEMA

PUNTU BAT LORTUKO DA:

- Sakeko falta bikoitzaren ondoren
- Aurkariek ez badute “bol”a ongi jasotzen
- Jokalarien arteko aldaketak ongi egiten ez badira
- “Bol”a beste zelaira pasatzean:
  - Sarearen azpitik pasatzen bada
  - Zelaiaren eremuetatik kanpo bote egiten badu defentsak ukitu gabe

3 SET-era JOLASTEN DA, hau da 2 SET IRABAZTERA

SET 1-era berdinduta badaude, 3.SET-a 10 PUNTUra JOLASTUKO da

Lehenengo 2 SET-ak 15 PUNTURA izango dira

Puntua GALDU duen taldeak eginen du SAKEA

JOLASA

1. SAKEA
2. REZEPZIOAREN AURREKO KOLPEAK
3. REZEPZIOA
4. KOLPEA AURKARIEN ZELAIRA ETA JOKALARI ALDAKETA
5. HUTS EGITEA
6. ERROTAZIOA



1.SAKEA

- Zelai bakoitzeko ATZEKO ESKUINEKO eremutik egiten da
- Hasierako sakea: zozketa bidez
- Jolasan zehar: aurreko puntua GALDU duen taldeak
- Errotazioa egin ondoren, ATZEKO ESKUIN eremuan dagoen JOKALARIAK eginen du

1. SAKEA

- BEHETIK-GORA egin behar da KOLPEA, eta BOTTLE-aren EDOZEIN ALDETATIK egin daiteke
  - Aholkua: “bottlea”ren alboarekin egin kolpea, eta tapoia goiko aldean jarrita egitea. Heltzeko errazago da, eta horrek prezisio eta kontrol handiagoa emanen digu
- Kolpea egiten duten jokalaria KOLPEA EGIN ONDOREN joko-eremutik ATERA behar da, aldaketa egin behar da
- Jokalari bakoitzak 2 SAKE egiteko aukera izanen du



2.REZEPZIO AURREKO KOLPEAK

- 3 KOLPE egiten ahal dira “Bottle”ak “bol”a hartu baino lehen
- Jokalari batek ezin du “bol”a 2 ALDIZ JARRAIAN jo
- Kolpea egin bitartean BESO eta HANKEN FLEXO-EXTENTSIOA egitea aholkatzen da, mugimendua lagunduz
- Kolpea “bottle”aren alde zabalarekin egitea aholkatzen da ematen zaion norabidea hobe kontrolatzeko
- Kolpea esku BAT edo BIREKIN egin daiteke (2 eskuekin helduz gero kontrol gehiago izanen da)

3.REZEPZIOA

- Rezepzioa bere “bottle”arekin egiten saiatzen ari den jokalariak:
  - Beheranzko mugimendu bat egingo du “bol”a jarraituz
  - Hanken eta “bottle”a dugun besoaren flexioa eginen da “bol”aren sarrera amortiguatuz (berriz ateratzea ekiditeko)

4. KOLPEA AURKARIEN ZELAIRA ETA JOKALARI ALDAKETA

- Behin “bol”a JASO dugula, “bol”a beste zelaira bidali beharko da. Bi modutan egin daiteke:
  - ZUZENEAN
  - AURRETIK KOLPE/ERREBOTE TXIKI BAT EGINEZ
- Kolpea “bol”a JASO DEN TOKITIK egin behar da, behin “bol”aren rezepzioa egin ondoren ezin gara mugitu
- Kolpea BEHETIK-GORAKA egin behar da
- “Bottle”aren edozein alderekin egin daiteke (sakean bezala egitea aholkatzen da, albo batekin eta tapoia goian)
- Kolpea zuzena izateko: sarearen gainetik pasa behar da eta ez du botea aurkarien zelaitik kanpo egin behar
- Kolpea egin duen jokalaria KANPOAN dagoenarekin ALDATU beharko da kolpea egin eta berehala (aldaketa eremutik) **Denen parte hartzea sustatzeko araua*

NOLA JOLASTEN DA?

JOKO EKINTZAK

REZEPZIO ZUZENEKO MODALITATEA

BOL MODALITATEA

BOTTLEBOL MODALITATEA

MODALITATEAK



UNITATE HONEN HELBURUAK

- Ikasleek birziklatzearen eta berrerabiltzearen garrantziaz kontziente izatea, eta inguruko baliabideak originaltasunez erabiltzea haien sormena landuz.
- Begi-eskuetako koordiazioa garatzea, bai eta kolpeak eta rezepzioak materialarekin lantzea ikuspegi nerritzaile batetik
- EZ-ohiko kirol berri bat eta bere alderdi positiboak ezagutzea, bai eta bere arautegi eta elementu tekniko-taktikoak ere.

UNITATE HONEN EDUKIAK

“Bottlebol”a: arautegia, jolas-eremua eta bere praktikarako materiala.

Ez-ohiko kirol honen alderdi tekniko-taktikoak

Banaka, binaka eta taldeka kolpeak eta rezepzioak materialarekin

Zailtasun maila eta ziurgabetasuna progresiboki handitzea

Begi-eskuetako koordinazioa

Ez-ohiko kirolak inklusiorako eta kirol tradizionalen estereotipoak apurtzeko herraminta gisa

3 R-ak: “reciclar”, “reducir” eta “reutilizar”. Material propioa sortuz

Sormena

METODOLOGIA



SÁNCHEZ BAÑUELOS, F. (1989) eta DELGADO NOGUERA, M.A. (1991)

KLASEKO JARDUERAK



EBALUAZIOA

LORPEN ADIERAZLEAK	HASIERAKO MAILA	MAILA ERTAINA	MAILA AURRERATUA	MAILA PROFESIONALA
Materiala sortzea (%25)	Bottlea eta bol-a laguntzarekin eta ez prozesuan ezta emaitzan ere interes handirik jarri gabe sortu dut	Bottlea eta bol-a laguntzarekin eta bai prozesuan eta bai emaitzan ere interesa jarriz sortu dut	Bottlea eta bol-a laguntzarik gabe, prozesuan interesa jarriz eta bukaerako itxura zainduz sortu dut	Bottlea eta bol-a laguntzarik gabe, prozesuan interesa jarriz eta bukaerako itxura zainduz sortu dut, eta gainontzekoei haiena egiten lagundu
Parte-hartzea, esfortzua eta taldekideekiko errespetua (%25)	Saioetan gutxi parte-hartzen dut eta irakasleak nire jarrera dela eta arreta deitu behar izan dit	Saioetan parte-hartzen dut irakasleak arreta deitu gabe	Saioetan parte hartzen dut, eguneroko hobetzen saiatzen naiz eta nire taldekideak errespetatzen ditut	Saioetan gogotsu parte hartzen dut, eguneroko hobetzen saiatzen naiz eta nire taldekideei hobetzen laguntzen diet aholkuak eta laguntza eskainiz
Ekintza teknikoak: sakea, kolpeak eta rezepzioa(%25)	Ariketa, jarduera eta jolasetan parte-hartzean ez naiz hobetzen saiatzen	Ariketak egiten ditut, eta kosta egiten zaidan arren hobetzen saiatzen naiz eta gauzak esaten didaten bezala egiten ditut	Exekuzio tekniko guztiak burutzeko gai naiz (sakea, kolpeak, rezepzioak etb.)	Exekuzio tekniko guztiak ongi burutzen ditut (sakea, kolpeak, rezepzioak etb.) eta nire taldekideei hobetzen laguntzen diet
Jokoa eta arautegia ezagutzea (%25)	Bottlebol-ean jolastean ez dakit zer egin, eta arautegiko faltak etengabe burutzen ditut	Arautegia ezagutzen dudan arren, noiz behinka hanka sartzen dut	Bottlebol-eko modalitateak eta arautegia ongi ezagutzen ditut, eta bete egiten dut	Nire taldekideek akatsen bat egitean gai naiz arautegia azaldu eta akatsa nola zuzendu azaltzeko, bai eta modalitate desberdinetako desberdintasunak azaltzeko

DENA PREST?
GOAZEN BA PRAKTIKAN JARTZERA!!!

MILA ESKER ETA GOZATU!!